

BENIDORREN ZER BARRI?

1

Haizeak jota, hastera goaz
umore onez bertsoan,
espabilatu gaitez an danok
inortxo balego lotan.

2

Lehendik dakigu eskola ona
Benidorren daukagula,
gurekin honuntz datorren batek
seguru dau matrikula.

3

Gure Kaxintok behin atera dau
sobresaliente nota,
han Benidorren izanda gero
bete-beterik dagola.

4

Jakin nahi neuke zelakoa dan
Benidorreko eskola;
jakizu, lagun, hori entzunda
kezkaz beterik nagola.

5

Herri askotan jaiotakoak
hainbeste andra-gizon,
ez neban uste honelakorik
inon leitekenik egon

6

Otoitz ta dantza, jolas ta kantu
irrintzi ta iskanbila,
hotel Canfalin osotzen dogu
Jesukristoren kuadrila.

7

Jan-edanean ontziak bete
jarri beharrez kartolak,
hemen bai errez galtzen dirala
medikuaren kontrolak.

8

Hainbeste jangai gozo aurrean
aukeran ikusi eta ,
aupa, Kattalin, gaur jan ta edan,
bihar egizu dieta.

9

Goiz-arratsaldez lanik ez eta
paseatu kalez-kale,
zahar eta barri, kontu-kontari
eten barik jo ta dale.

10

“Angelus” esan ondoren, batek:
“Hartuko al dogu pintxo?”
Gure txakurra Pintxo bezala
danak doaz txintxo-txintxo.

11

Giputz-bizkaitar, danetik gara
etxe bateko eginik,
lehengo batean gure gizonak
alkar ulertu ezinik.

12

Batak babarrun-eltze diño ta
besteak baba-lapiko,
kale-erdian makur eginda,
ia barrez ziran ito.

13

Lehengo batean alkarren aurka
Reala eta Atletik,
babarrun-baba hartu daiela
aurretik edo atzetik.

14

Jakina danez, gure artean
lehenengo lekuan kartak,
txintxo ta mantxo ibili arren,
agertzen dira txinpartak.

15

Hemen egunak beterik doaz,
gauak ere ekinean;
hemendik zurrut, handikan purrut
ezin egon isilean.

16

Guk Benidorren daukagun zera,
beste inok ez daukana:
goiz eta arrats meza-otoitzez
ospatzen dogula dana.

17

Hor eta hemen Bizian Gora
dogu Jaunaren aldaba;
ondo dakigu Jauna ez dala
ondo bizitzeko traba.

18

Horra Benidor guretzat zer dan
bertso barriz kontatua;
zuretzat da-ta, gogoan hartu,
euskaldun jubilatua.

19

Kontatu dogu ahal dan ondoen
zer dagoan Benidorren;
Bizian Goraz joaten dana
handik zein pozik datorren.

20

Esperientzi hau zer izan dan
gaur esaterik ez dago,
zeu joan zaitez eta ikusi
berandu baino lehenago.

A. Martzel